



GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

Vitoria-Gasteiz, 2020ko martxoak 3

Vitoria-Gasteiz, 3 de marzo de 2020

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

GOBERNUAK BESTE AGINTALDI BATERAKO BERRETSI DITU EUSKADIKO AHOLKU BATZORDE JURIDIKOKO BOST KIDE

Gobernu Kontseiluak gaur bost dekretu onetsi ditu, [Fátima Saiz Ruiz de Loizaga](#), [Imanol Zubizarreta Arteche](#), [Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo](#), [Luis M^a Eskubi Juaristi](#) eta [Maite Astigarraga Goenaga](#) *Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoko* bokal izendatzeko. Izendapen horien bidez, sei urteko beste agintaldi batean jarraituko dute kargu publikoetan.

AHOLKU BATZORDE JURIDIKOA

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioaren, toki-administrazioaren, UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitatearen eta horiei lotutako edo horien mendeko gainerako erakunde publikoen kontsulta-organoa da. *Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak* administrazio-jarduketa legetara eta Zuzenbidera egokitzen dela bermatzen du, eta honako kasu hauetan kontsultatu behar da:

- Lege-aurreproiektuak
- Legegintza-dekretuen proiektuak
- Eusko Jaurlaritzak Legebiltzarraren legeak garatzean edo gauzatzean, Estatuko legeria garatzeko eskumen autonomikoak baliatzean, edo Europar Batasuneko erregelamenduak edo zuzentarauak garatzean edo aplikatzean ematen dituen erregelamenduzko xedapenen proiektuak
- Gatazkak tokiko autonomiaren defentsan
- Egintzen eta administrazio-xedapenen ofiziozko berrikuspena
- Berrikusteko aparteko administrazio-errekurtsoak
- Administrazio-kontratuen baliogabetasuna, interpretazioa eta ebazpena
- Administrazio-emakiden baliogabetasuna, interpretazioa, aldaketa eta azkentzea
- Administrazioen ondarezko erantzukizunei buruzko erreklamazioak
- Udal-barrutien aldaketa lurralde historiko bati baino gehiagori eragitean
- Bere eraketari, antolamenduari, eskumenari eta funtzionamenduari buruzko gaiak.

Enplegua eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK ONIRITZIA EMAN DIO LANBIDEK FAMILIAKO ETA LANEKO BIZITZA KONTZILIATZEKO SUSTATZEN DITUEN 2,2 MILIOI EUROKO LAGUNTZAK FINANTZATZEARI

Gaur goizean, Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio **familiako eta laneko bizitza kontziliatzeko** eta seme-alabak edo mendetasun-egoeran edo oso osasun-egoera larrian dauden senideak zaintzeko eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu duten langileak ordezkatzeko Lanbidek sustatzen dituen laguntzak finantzatzeari. 2020ko ekitaldirako deialdiaren dirulaguntza 2.200.000 eurokoa da.

Diruz lagundu beharreko jardunetan langabe gisa inskribatutako pertsonak kontratatzea aurreikusten da, **besteren konturako langileak edo kooperatiba-sozietateetako bazkide langileak edo lan-bazkideak ordezkatzeko**, eszedentzia edo lanaldi-murrizketa hartu badute.

Era berean, diruz laguntzen da eszedentzian edo lanaldi-murrizketan dagoen langile baten lanpostua betetzeko **aurretik lanaldi partzialerako kontratatutako langile baten lanaldia luzatzea**. Diruz lagundu daitezkeen gehienekoaldiak eguneratu egin dira, eta bikoiztu egiten dira ordeztutako pertsona gizonetako bada eta **hura ordezkatzeko emakume bat kontratatzen bada**.

Dirulaguntzaren zenbatekoa gertakari arruntengatik enpresak Gizarte Segurantzari egiten dion **kotizazioaren % 100 izango da** besteren konturako langileen kasuan, edo Araubide Orokorrean kotizatzen duten bazkide langileen edo lan-bazkideen kasuan, edo gutxienezko oinarriaren kotizazioaren % 100, Langile Autonomoen Araubide Berezian kotizatzen duten bazkide langileen edo lan-bazkideen kasuan, edota, hala badagokio, kotizatzen deneko kuota bakarra.

2019ko ekitaldian, laguntza horien batez besteko kostua **1.273,22 eurokoa** izan zen, eta 1.497 kontratu diruz lagundu ziren. Horietatik 1.253 emakumeenak izan ziren, eta 244 gizonenak. Laguntza horiek 467 enpresak jaso zituzten, eta **1.911.514,26 €**-ko aurrekontua gauzatu zen. **2020ko ekitaldiari begira**, gutxi gorabehera 1.728 pertsonaren kontratazioa finantzatzea aurreikusi da.

Enplegua eta Gizarte Politikak

GOBERNU KONTSEILUAK ONIRITZIA EMAN DIO DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN ENPLEGAGARRITASUNERA LANBIDEK BIDERATU DITUEN 700.000 EUROKO LAGUNTZEN PROGRAMARI

- **Kontratatutako pertsona emakumea bada, dirulaguntzaren zenbatekoa % 10 areagotuko da**

Gobernu Kontseiluak gaur oniritzia eman dio **desgaitasuna duten pertsonen enplegagarritasunera** Lanbidek bideratu dituen 700.000 euroko laguntzen programari. **Beatriz Artolazabal** Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuaren arabera, “desgaitasuna duten pertsonen enplegua sustatzen da, haien laneratzea erraztuko duten laguntzak ezarrita; horien artean daude kontratatzeko dirulaguntzak ematea, lanpostuak egokitzea eta ekoizpen-zentroetan haien sarbidea, mugikortasuna, komunikazioa edo ulermena zailtzen duten era guztietako oztopoak kentzea”.

2020ko ekitaldirako deialdiaren zenbatekoa 700.000 €-koa da, eta bi dirulaguntza-lerro aurreikusi dira: desgaitasuna duten pertsonak **lan-merkatu arruntean** kontratatzeko laguntzak, enpresei kontzeptu hori dela-eta eman beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa 4.000 euro izanik, baldin eta kontratua lanaldi osorako hitzartzen bada, eta itundutako lanaldiarekiko proportzionala izango da lanaldi partzialerako hitzartzen bada; eta kontratatutako pertsona **emakumea** balitz, zenbatekoa dirulaguntzaren zenbatekoa % 10 areagotuko da.

Bigarren ildo **lanpostuak egokitzeko** eta oztopoak kentzeko laguntzei buruzkoa da. Kontzeptu horren ondoriozko dirulaguntzaren zenbatekoa 1.000 euro izango da gehienez langile bakoitzeko. Laguntzak emateko prozedura hurrenez hurreneko konkurrentziakoa da, eta baldintzak betetzen dituzten eskabideei ematen zaizkie dirulaguntzak, aurkezteko hurrenkeraren arabera, funtsak agortu arte. Desgaitasuna duten pertsonen enpresa arruntetan kontratu mugagabea egiteko emandako laguntzak **Europako Gizarte Funtsak** kofinantzatzen ditu.

2019ko ekitaldirako laguntzen deialdian 78 kontratu diruz lagundu ziren, eta 265.140 €-ko aurrekontua gauzatu zen. 2020ko ekitaldiarekiko, aurreko urteetako joerari eutsi zaio aurkeztutako eskaeren kopuruari dagokionez, eta horrek justifikatzen du 2020ko deialdirako kredituari eustea. Deialdi horretan aurreikusi da lan-merkatu arruntean desgaitasuna duten pertsonen 200 kontratu mugagabe baino gehiago egitea.

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

INGURUMENAK BI SEGURTASUN-DEPOSITU ERAIKITZEA ONARTU DU ZALDIBARKO ZABORTEGIAN PREMIAZKO LANETAN ERRETIRATUTAKO HONDAKINAK BILTZEKO

- Berehala eraikiko diren bi gelaxkak zabortegeiaren aldameneko lurretan kokatuko dira, ingurumen-inpaktua murrizteko asmoz
- Zabortegeiko erreskate- eta egonkortze-lanetan erretiratutako hondakinen 300.000 metro kubiko jasoko dira bertan eta, ondoren, zigilatu egingo dira

Gaur egindako bileran, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburu Iñaki Arriolak proposatuta, Gobernu Kontseiluak Dekretu bat onartu du. Horren bitartez, Zaldibarko zabortegeiaren inguruan hondakinen segurtasuneko deposituak berehala eraikitzea erabaki da, erreskate- eta egonkortze-lanetan erretiratzen ari diren hondakinak bertan jaso ahal izateko.

Jarduketa hori Ingurumen Saila era subsidiarioan hartzen ari den premiazko neurrien barruan kokatzen da, Verter Recycling enpresaren instalazioetan otsailaren 6an gertatutakoa bezalako lur-irristadura gehiago ez gertatzeko, lur azpian harrapatuta geratu ziren bi langileen bilaketa-lanak errazteko, eraistearen ondoren sortutako suteak kontrolatzeko eta lixibiatuak bideratzeko.

Ingurumenean kalteak eta hondakin horien garraioan arriskuak murrizteko, teknikariek erabaki dute segurtasun-depositu horiek zabortegeiaren aldamenean dauden lurretan kokatzea. Lur horien zati baten jabea Verter Recycling enpresa da eta beste zatiak jabe bat baino gehiago ditu. Zabortegeiaren beheko aldean eraikiko den 1. deposituak 140.000 m³-ko edukiera izango du eta zabortegeiaren goiko aldean eraikiko den 2. deposituak 160.000 m³ ingurukoa.

Behin beteta zigilatu egingo dira

Onartutako Dekretuan segurtasun-deposituak premiaz eraikitzeagatik eraginpean egongo diren lurren eta ondasunen aldi baterako okupazioaren erabilera publikoa, interes soziala eta premia aitortzen dira. Halaber, zabortegeiko kolapsoaren ondoren sortutako premiazko egoera kontuan hartuz, proiektu hau ohiko ingurumen-inpaktua eta lurzorua kalitatea ebaluatzeko prozeduretatik salbuesten da, kasu hauetan legeriak hori ahalbidetzen baitu. Hala ere, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak egokitasuneko azterketa bat egin du okupatuko diren lurzoruetan aurreikusitako erabilerak ezartzeko. Proiektua ere udalaren hirigintza-lizentziak eskuratu beharretik salbuetsia dago.

Aurretik aipatu bezala, bi depositu horiek sortzeko helburua honako hau da: lur-irristatzea gertatu zenean lurpean geratu ziren bi langileen erreskate-lanetan

eta AP-8 autobideko ezpona eta isurketa-basoa sendotzeko lanetan erretiratzeko ari diren zabortegiko hondakinak biltzen uztea. Lurren iragazgaiztea, gasen irteera, eta uren drainatze eta bilketa egokia ziurtatzeko berme guztiekin eraikiko dira. Aurreikusitako edukierara heltzen direnean, depositu horiek zigilatu egingo dira.

Lan horietan aditua den enpresa batek egindako proiektuan bi deposituen ezaugarri teknikoak, hauei lotutako instalazioak, sarbideak eta hondakinak mugitzeko eta jalkitzeko jarraituko diren operazioak zehazten dira. Zaldibarko zabortegia arriskutsuak ez diren materialak biltzeko prestatuta dagoen arren, bere tratamendurako, hondakinak arriskutsu gisa kalifikatu dira, lurra irristatzean fibrozementudun eraikuntza-materialak (amianto) biltzeko baimendutako gelaxken edukiarekin nahastu direlako.

Premiazko esku-hartzeak

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak izendatutako talde teknikoak gauzatutako premia esku-hartze horiek guztiak Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol integratuko Espainiako Legean (35. eta 36. artikulua), 1998ko Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorrean (102. eta 105. artikulua) eta 2007ko Ingurumen Erantzukizuneko Espainiako Legean xedatutakoaren arabera burutzen dira. Azken arau horren 9. artikuluan honako hau adierazten da: ***“Lege honen barne hartutako jarduera ekonomikoen edo ingurumeneko jardueren operadoreek ingurumeneko kalteak prebenitzeko, ekiditeko eta konpontzeko neurriak hartzeko eta gauzatzeko, eta horiek eragindako kostuak ordaintzeko obligazioa dute, kopuru hori edozein dela ere, baldin eta eragindako kalteen erantzuleak badira”***.

Era berean, arau honen 23. artikuluan Administrazioaren esku-hartze zuzena eskatzen duten kasuak —Zaldibarko zabortegiaren krisian ematen ari direnak adibidez— aztertzen dira, honako hau zehaztuz: ***“Larrialdi-kasutan, agintaritza eskudunak ingurumen-kalteak zuzentzeko, ekiditeko edo prebenitzeko neurriak finkatzeko edo haiek ezartzea eskatzeko ahalmena izango du, lege honetan aurreikusitako prozedura tramitzeko beharrik gabe”***. Larrialdi-egoera desagertu ondoren, agintaritza eskudunak ***“ebazpena emango du, egikaritutako neurrien kostuen zenbatekoa finkatuz, artikulua hau eta kostu horiek ordaintzeko behartua edo behartuak aplikatu ondoren”***.

Azkenik, Ingurumen Erantzukizuneko Legearen 23. artikulua 3. puntuan honako hau adierazten da: ***“agintaritza eskudunak operadorearengandik edo, bidezkoa denean, kaltea bera edo berehalako kalte-mehatxua eragin duen hirugarrenarengandik jasoko ditu prebentzioko, kalte gehiago ekiditeko edo konpontzeko neurriak hartzeagatik izan dituen kostuak”***.

Osasuna

LEHENDAKARIA BURU DUEN SAILARTEKO MAHAIK GOUR EGUN EAE-N INDARREAN DAUDEN PREBENTZIO-NEURRIEI EUSTEN DIE KORONABIRUSAREN AURREAN

- **13 COVID-19 kasu zenbatu dira: 10 Araban, 2 Gipuzkoan eta 1 Bizkaian; guztiei Osasun Publikoa eta Osakidetza jarraipena egiten ari zaie**

Lehendakaria Eusko Jaurlaritzak joan den astean eraturako sailarteko mahaiaren bileraren buru izan da gaur, EAEn koronabirusaren aurrean jarduna aztertzeko. Guztira 13 kasu zenbatu dira.

Hala jakinarazi du Nekane Murga Osasuneko sailburuak, Josu Erkoreka sailburuarekin batera Gobernu Kontseiluaren ondorengo prentsurrekoan egindako agerraldian, eta azpimarratu du **gaur egun indarrean dauden prebentzio-neurriei eusten zaiela** eta oraingoz ez dela salbuespenezko bestelako neurririk ezartzea aurreikusten.

Lehendakaria buru duen eta zazpi sailburuk osatzen duten mahaiari jakinarazi dionez, EAEn zenbatutako **13 COVID-19 kasuetatik** 10 Araban daude, 2 Gipuzkoan eta 1 Bizkaian. Guztietatik 5 osasun-langileak dira. Murga sailburuak jakinarazi duenez, guztiak **egoera onean daude, eta Osasun Publikoa eta Osakidetza jarraipena egiten ari zaie.**

Atzo gauean baieztatu zen lehen kasua **Bizkaian**. Osasun egoera onean dagoen gizonezko bat da. Gaur egun etxean dago eta bertatik egingo diote jarraipena. Itxura guztien arabera, Anberesera egindako bidaia baten ondoren sortu zen kutsaduraren fokua.

Arabian beste bi kasu gehitu dira, guztira 10 izateraino. Horietako bat emakume batena da eta dagoeneko bakartuta zegoen, lehen positiboen kontaktu bat baitzen. Beste kasua gizon bati dagokio, eta, era berean, lehen kasuen kontaktu bat zenez, etxeko jarraipenean zegoen. Osasun-egoera dela eta, ospitalera eraman dute jarraipena egiteko.

Gipuzkoan erregistratutako bi kasuei dagokienez, bat ospitalera eraman dute.

EGINDAKO JARDUNAK

Egoerari buruzko azken datuez gain, sailarteko mahaiari egindako jardunen berri ere eman zaio. Betiere adituen gomendioen arabera erabaki dira jardunak, eta gainerako euskal erakundeekin eta Eusko Legebiltzarreko alderdi politikoekin partekatzen ari dira.

Neurri horien artean, osasun-arloan ezarritakoak nabarmentzen dira.

Lehenik eta behin, Osasun Sailak lanean jarraitzen du baieztatutako kasuen **kontaktuak aztertzen**. Azterketa horiek guztira 211 pertsona hartzen dituzte une honetan. Ildo horretatik, Nekane Murgak iragarri du **12 mediku gehiago sartuko direla Osasun Publikoko behaketa epidemiologikoko taldean**, eta, horri esker, zerbitzua indartu ahal izango dela —gaur egun 25 pertsonak lan egiten dute zerbitzu horretan—.

Bestalde, Osakidetzako osasun-erakunde guztiek **jardun-protokoloak** aplikatzen jarraitzen dute. Nekane Murgak onartu duenez, osasun-arloko profesionalen artean izandako kasu positiboek murrizketa ekarri dute zentroetan, bereziki Arabako ESIan. Hala ere, sailburuak berak lasaitasunerako deia berretsi zuen, bereziki Arabako biztanleei zuzenduta, haien parte-hartzea bermatuta baitago.

Osasuneko sailburuak gogorarazi duenez, joan den igandean jarraibideak eman zitzaizkien Osakidetzako erakunde sanitarioei **profesionalen kolektiboarekin arreta handiz jokatzeko**, eta atzo mahai teknikoak Osasun Ministerioarekin izandako bi bileren ondoren berretsi egin zen erabakia. Neurri horiek zentro soziosanitarioetako profesionalengana ere zabaltzen dira orain.

Era berean, azken asteetan **areagotu egin da profesionalen prestakuntza**, bai intranet, mailing eta prestakuntza-bideoen bidez, bai gaixotasun infektzioetako, prebentzioko, urgentzietako, larrialdietako eta lehen mailako arretako unitateetako 1.700 profesional baino gehiagori zuzendutako aurrez aurreko ikastaroen bitartez.

Osakidetzako **Osasun Kontseilua** ere langile gehiagorekin osatu eta indartu da, eta otsailaren 26tik 900 dei inguru jaso ditu.

HERRITARRENTZAKO GOMENDIOAK

Eusko Jaurlaritzako Osasuneko sailburuak berriz ere azpimarratu du garrantzitsua dela herritarrek Osasun Sailak eta Osakidetzak eskura dituzten bide guztien bitartez ematen dituzten gomendioak betetzea. Gomendio horiek eskuragarri daude Sailaren eta Osakidetzaren **webgunean** eta, atzotik, Osakidetzaren **appan** ere. Hauek dira gomendio nagusiak:

-Etxean geratzea eta 900 20 30 50 telefonora deitzea, arrisku-eremuren batera bidaiatu eta sintomak izanez gero.

-Higiene-neurriak hartzea, hala nola eskuak garbitzea, eztul egitean estaltzea edo erabili eta botatzeko zapiak erabiltzea.

Era berean, gomendatzen da **sukarra edo arnas infekzio akutuko sintomak dituzten pertsonak** ez joatea esparru itxietan antolatutako ekitaldi kolektiboetara edota instituzioetara (hala nola zentro soziosanitarioak).

Kultura eta Hizkuntza Politika

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILAK 445.000 EUROKO LAGUNTZA DEIALDIA ONARTU DU ARTE PLASTIKOAK ETA IKUSIZKOAK SUSTATZEKO ETA GARATZEKO

- **iaz, 64 kultur ekimen babestu ziren diru-laguntza horien hiru modalitateen bidez**

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 445.000 euro bideratuko ditu aurten Euskadin arte plastikoak eta ikusizkoak sustatu eta garatzeko. Gobernu Kontseiluak bere gaurko bileran onartu duen deialdi honek hiru modalitate izango ditu. Iaz, 64 ekimen diruz lagundu ziren deialdi horren bidez.

Arte plastikoak eta ikusizkoak sustatzeko diru-laguntza deialdiak honako laguntza-lerro hauek ditu:

- Sustapen- eta hedapen-modalitatea, 55.000 euroko aurrekontua izango duena. Modalitate horrek bi motatako ekimenak diruz laguntzea ahalbidetuko du.
 - a) Euskadiko kultur etxeetan egingo diren arte garaikideko ekitaldiak edo adierazpenak (lehiaketak, jaialdiak, erakusketak ...) antolatzea edota horietan parte hartzea.
 - b) Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren arte garaikideari buruzko sentsibilizazio-adierazpenak laguntzea (topaketak, jardunaldiak, kongresuak, tailerrak, hitzaldiak...).
- Argitalpenen modalitatea, 121.000 euroko aurrekontua izango duena. Modalitate honen bidez, Euskadin arte garaikidea zabaltzea eta artistak eta haien obrak sustatzea helburu duten hainbat euskarritan argitalpenak egitea bultzatuko da.
- Sorkuntza-produkzio modalitatea, 269.000 euroko aurrekontua izango duena. Modalitate honen bidez, arte plastikoen eta ikusizkoen arloan proiektuak egiteko laguntza ekonomikoak emango dira.

Laguntza deialdi honetaz gain, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak beste politika batzuk ere baditu sortzaileak laguntzeko arte plastikoen eta ikusizko arteen esparruan. Hala, Eusko Jaurlaritzak urtero 54.000 euro bideratzen ditu Gure Artea Sariak antolatzera, arte plastikoen eta ikusizkoen arloan erreferentziazko artistak aitortzeko asmoz. Halaber, galeriei eta museoiei emandako diru-laguntzen bidez ahalegin garrantzitsua egiten da sektorea sendotzeko, eta, aldi berean, Eremuak programa antolatzen da, euskal arte garaikidearen testuingurua sustatzea helburu duena.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak baditu bi diru-laguntza deialdi, kultura-sektore gehienak barne hartzen dituztenak, baina eragin berezia dutenak arte plastiko eta ikusizkoetan. Sorgune eta Bitartez deialdiak dira, eta iaz 560.000 eta 500.000 euroko aurrekontua izan zuten, hurrenez hurren.

Kultura eta Hizkuntza Politika

EUSKO JAURLARITZAK 300.000 EURO BIDERATU DITU IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTUEN GARAPENA DIRUZ LAGUNTZEKO

- **Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak zinemagintza sustatzeko duen hiru lerroetako bat da, iaz 16 proiektu babestu ziren horren bitartez**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 300.000 euroko partida onartu du, bere gaurko saioan, ikus-entzunezko proiektuen garapena diruz laguntzeko. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren deialdi honen helburua da 2020an eta 2021ean garatuko diren ekoizpenen prestaketa eta diseinua bultzatzea, produkzio-fasearen aurreko eragiketetan arreta jarriz. Iaz 16 proiektu babestu ziren laguntza-lerro horren bidez.

Eusko Jaurlaritzak ikus-entzunezkoen sektoreari zuzendutako diru-laguntzek sormen-prozesu osoa hartzen dute: gidioen sormena, ikus-entzunezkoen ekoizpen eta, hirugarrenik, proiektuen garapena. Horretarako, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak urtero hiru diru-laguntza lerro jartzen ditu abian, horietako bat Gobernu Kontseiluak gaur onartu duena. Lehenik eta behin, sormen-prozesuaren hasierari erreparatuz, Jaurlaritzak urtero bultzatzen du 'Kultur sormena' deialdia, kultura-sektore desberdinak barne hartzen dituen zazpi modalitateen bitartez. Zazpi modalitate horietako bat zinema gidoiak laguntzera zuzenduta dago, eta iaz 104.000 euroko aurrekontua izan zuen eta 8 proiektu lagundu zituen.

Ikus-entzunezkora bideratutako bigarren diru-laguntza deialdia gaur Gobernu Kontseiluak onartu duena da, eta ikus-entzunezko proiektuen garapenean jartzen du arreta. Iaz, deialdi horren bidez 16 proiektu lagundu ziren, eta 11.784 eta 22.380 euro arteko diru laguntzak bideratu zituzten horietara. *3.000 oztopo*, Irusoinena; *Robot Dreams*, Aixerrota Filmsena; *El asesinato de Anna Thorwald*, Moriarti Produzioena; edo *Cenicienta Enmascarada*, Myriam Ballesteros Produccionesena.

Azkenik, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak ikus-entzunezko ekoizpenari zuzendutako diru-laguntza deialdi bat du, ekonomikoki garrantzitsuena. Laguntza-lerro horrek 2.260.000 euroko aurrekontua du guztira, eta lau modalitate ditu: fikziozko film luzeak; aurrekontu txikiko fikziozko film luzeak; sormenezko film dokumental luzeak; eta, azkenik, film laburrak. Iaz 24 ekimen babestu ziren deialdi horren bidez.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, Legegintzaldiaren hasieran, laguntza-lerro horiek % 35 handitzea erabaki zuen, proiektuen garapen-prozesua sendotzeko eta talentu berriei laguntzeko. Gaur onartutako deialdiaren kasuan, aurrekontua 100.000 eurotik 300.000 eurora pasa da.

Diru-laguntza lerro horiek alde batera utzita, Eusko Jaurlaritzak bestelako bideak ditu euskal ikus-entzunezkoa sustatzeko: Zineuskadi(Europa Sortzailea,

Zinema Euskaraz, Basque Audiovisual...), Euskadiko Filmategia, sektoreko elkarreentzako diru-laguntza izendunak (iaz Ibaia, epe/APV, Eiken eta Gidoilarien Elkarreentzat izan ziren), Kimuak programa (Etxeparek eta Euskadiko Filmategiak kudeatua) edota jaialdien laguntza (aipagarrienak Zineuskadi, Zinebi eta Mendifilm). Halaber, EITBk euskal zinemari ekarpen garrantzitsua egiten dio urtero, Euskadin egiten diren zinema-proiektu nagusiak ahalbidetuz.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO CONFIRMA EN SUS CARGOS PARA OTRO MANDATO A CINCO VOCALES DE LA COMISIÓN JURÍDICA ASESORA DE EUSKADI

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, cinco decretos para el nombramiento de [Fátima Saiz Ruiz de Loizaga](#), [Imanol Zubizarreta Arteche](#), [Iñaki Beitia Ruiz de Arbulo](#), [Luis M^a Eskubi Juaristi](#) y [Maite Astigarraga Goenaga](#) como vocales de la “*Comisión Jurídica Asesora de Euskadi*”, COJUAE. Sendos nombramientos les permitirán continuar, otro mandato de seis años, en sus cargos públicos.

COJUAE

La “*Comisión Jurídica Asesora de Euskadi*” es el órgano consultivo de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, de la Administración Local, de la Universidad del País Vasco UPV/EHU, y de las demás entidades públicas vinculadas a estas o dependientes de ellas. La COJUAE vela porque la actuación administrativa se ajuste a las leyes y al Derecho, y ha de ser consultada en casos de:

- Anteproyectos de ley
- Proyectos de decretos legislativos
- Proyectos de disposiciones reglamentarias que se dicten por el Gobierno Vasco en desarrollo o ejecución de leyes del Parlamento; en ejercicio de las competencias autonómicas de desarrollo de la legislación estatal; o que desarrollen o apliquen reglamentos o directivas de la Unión Europea
- Conflictos en defensa de la autonomía local
- Revisión de oficio de actos y disposiciones administrativas
- Recursos administrativos extraordinarios de revisión
- Nulidad, interpretación y resolución de los contratos administrativos
- Nulidad, interpretación, modificación y extinción de concesiones administrativas
- Reclamaciones sobre responsabilidad patrimonial de las administraciones
- Alteración de los términos municipales cuando afecte a más de un territorio histórico
- Asuntos relativos a su propia composición, organización, competencia y funcionamiento.

Empleo y Políticas Sociales

EL CONSEJO DE GOBIERNO DA SU VISTO BUENO A LA FINANCIACIÓN, CON 2,2 MILLONES DE EUROS, DE AYUDAS PROMOVIDAS POR LANBIDE PARA LA CONCILIACIÓN DE LA VIDA FAMILIAR Y LABORAL

El Consejo de Gobierno da su visto bueno esta mañana a la financiación de ayudas promovidas por Lanbide para la **conciliación de la vida familiar y laboral** y sustituir a personas trabajadoras acogidas a una excedencia o reducción de jornada de trabajo para el cuidado de hijos e hijas o de familiares en situación de dependencia o extrema gravedad sanitaria. El importe económico de la convocatoria para el ejercicio 2020 asciende a 2.200.000 euros

Las actuaciones a subvencionar preven la contratación de personas inscritas como desempleadas, **para sustituir a personas trabajadoras por cuenta ajena o personas socias trabajadoras o socias de trabajo de sociedades cooperativas**, que se hayan acogido a una excedencia o reducción de jornada.

También se subvenciona así mismo **la ampliación de jornada laboral de una persona trabajadora anteriormente contratada a tiempo parcial** para cubrir el puesto de una persona en excedencia o reducción de jornada. Los períodos máximos subvencionables han sido actualizados y se duplican en caso de que la persona sustituida sea un hombre y **se contrate a una mujer para sustituirle**.

La cuantía de la subvención **equivale al 100% de la cotización empresarial** por contingencias comunes a la Seguridad Social en el caso de trabajadores por cuenta ajena o de personas socio trabajadoras o personas socias de trabajo que coticen al Régimen General, o al 100% de la cotización de la base mínima en el supuesto de personas socio trabajadoras o personas socias de trabajo que cotizan al Régimen Especial de Trabajadores Autónomos, o en su caso a la cuota única por la que se cotice.

En el ejercicio **2019** el coste medio de estas ayudas fue de **1.273,22 euros** y el número de contratos subvencionados fue de 1.497, de los cuales 1.253 fueron mujeres y 244 fueron hombres. El número de empresas que recibieron estas ayudas fue de 467, con un presupuesto ejecutado de **1.911.514,26 €**. **De cara al ejercicio 2020**, la previsión es de financiar la contratación aproximada de 1.728 personas.

Empleo y Políticas Sociales

EL CONSEJO DE GOBIERNO DA SU VISTO BUENO AL PROGRAMA DE AYUDAS, CIFRADAS EN 700.000 EUROS, QUE LANBIDE DEDICA A LA EMPLEABILIDAD DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD

- Si la persona contratada es mujer, la cuantía de la subvención se incrementará en un 10%

El Consejo de Gobierno ha dado hoy su visto bueno al programa de ayudas cuantificadas en 700.000 euros que Lanbide dedica a la **empleabilidad de las personas con discapacidad**. Según la Consejera de Empleo y Políticas Sociales, **Beatriz Artolazabal**, “se fomenta del empleo de las personas con discapacidad a través del establecimiento de ayudas que faciliten su inclusión laboral, entre las que contempla las subvenciones para la contratación, la adaptación de los puestos de trabajo y la eliminación de todo tipo de barreras que dificulten su acceso, movilidad, comunicación o comprensión en los centros de producción”.

El importe económico de la convocatoria para el ejercicio 2020 es de 700.000 € y se contemplan dos líneas subvencionales: Ayudas a la contratación de personas con discapacidad en el **mercado ordinario** de trabajo con un importe de la subvención a conceder a las empresas por este concepto de 4.000 euros si el contrato se concierda a jornada completa y proporcional a la jornada pactada si se concierda a tiempo parcial, y si la persona contratada fuese **mujer**, la cuantía de la subvención se incrementará en un 10%.

La segunda línea se refiere a las Ayudas para la **adaptación de puestos de trabajo** y la eliminación de barreras con un importe de la subvención por este concepto de un máximo de 1.000 euros por cada persona trabajadora. El procedimiento de concesión es un procedimiento de concurrencia sucesiva, concediéndose las subvenciones a las solicitudes que cumplen los requisitos por orden de presentación, hasta el agotamiento de los fondos. Las ayudas concedidas para la contratación indefinida de personas con discapacidad en empresas ordinarias, son cofinanciadas por el **Fondo Social Europeo**.

En la convocatoria de ayudas para el ejercicio **2019** se subvencionaron 78 contratos y se ejecutó un presupuesto de 265.140 €. Con respecto al ejercicio 2020, la tendencia de años anteriores se mantiene en cuanto al número de solicitudes presentadas y ello justifica el mantenimiento del crédito para la convocatoria 2020 en la que la previsión es que se superen los 200 contratos indefinidos de personas discapacitadas en el mercado ordinario de trabajo.

Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda

MEDIO AMBIENTE APRUEBA LA CREACIÓN DE DOS DEPÓSITOS DE SEGURIDAD PARA LOS RESIDUOS RETIRADOS EN LOS TRABAJOS DE URGENCIA EN EL VERTEDERO DE ZALDIBAR

- **Las dos celdas, que se construirán de forma inmediata, se ubican en terrenos adyacentes al vertedero, para minimizar el impacto ambiental**
- **Acogerán 300.000 metros cúbicos de residuos retirados en las tareas de rescate y estabilización del vertedero y serán sellados posteriormente**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su reunión de hoy, a propuesta del consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, Iñaki Arriola, un Decreto por el que se determina la ejecución urgente de los depósitos de seguridad de residuos en el entorno del vertedero de Zaldibar, con el fin de que puedan acoger los residuos que se están retirando en las tareas de rescate y de estabilización.

Esta actuación se enmarca dentro de las medidas de urgencia que está acometiendo de forma subsidiaria el Departamento de Medio Ambiente para prevenir nuevos deslizamientos como el que se produjo el pasado 6 de febrero en las instalaciones de Verter Recycling, facilitar la búsqueda de los dos operarios sepultados, controlar los incendios originados tras el derrumbe y encauzar los lixiviados.

Con el fin de minimizar las afecciones al medio ambiente y los riesgos de su transporte, los técnicos han optado por que estos dos depósitos de seguridad se ubiquen en unos terrenos adyacentes al vertedero, parte de ellos propiedad de la empresa Verter Recycling y otra parte de varios propietarios. La capacidad estimada del depósito 1, situado en la parte baja del vertedero, es de 140.000 m³, y la del depósito 2, que se ubica en la parte superior, es de 160.000 m³, aproximadamente.

Serán sellados una vez que se llenen

En el decreto aprobado se declara la utilidad pública e interés social y la urgencia de la ocupación temporal de los terrenos y bienes afectados por la ejecución urgente de los depósitos de seguridad. Así mismo, dada la situación de emergencia creada tras el colapso del vertedero, se exceptúa a este proyecto de los procedimientos de evaluación de impacto ambiental y de calidad del suelo habituales, según permite la legislación en estos casos. No obstante, por parte del Departamento de Medio Ambiente se ha realizado un estudio de idoneidad para el destino previsto de los suelos que van a ser

ocupados. También se exige al proyecto de la obtención de licencias urbanísticas municipales.

El objetivo de la creación de estos dos depósitos es, como se ha indicado, permitir el almacenamiento de los residuos del vertedero que se están retirando en los trabajos de rescate de los dos operarios sepultados en el deslizamiento y de consolidación del vaso de vertido y del talud de la autopista AP-8. Se realizarán con todas las garantías para asegurar la impermeabilización de los terrenos, la salida de gases y el adecuado drenaje y recogida de las aguas. Una vez que alcancen la capacidad prevista, se procederá a su sellado.

El proyecto elaborado por una empresa experta en ingeniería ambiental define las características técnicas de ambos depósitos, sus instalaciones asociadas, así como los caminos de acceso y las operaciones que se seguirán para la movilización y depósito de los residuos. Aunque el vertedero de Zaldibar es de materiales no peligrosos, los residuos han pasado a ser calificados de peligrosos a efectos de su tratamiento, ante la posibilidad de que se hayan mezclado en el deslizamiento con el contenido de las celdas autorizadas para acoger materiales de construcción con fibrocemento (amianto).

Intervenciones de emergencia

Todas estas intervenciones de emergencia abordadas por el equipo técnico designado por el Departamento de Medio Ambiente se realizan al amparo de lo dispuesto en la Ley estatal de Prevención y Control Integrados de la Contaminación (artículos 35 y 36), en la Ley General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco de 1998 (artículos 102 y 105), y en la Ley estatal de Responsabilidad Ambiental de 2007. Esta norma establece en su artículo 9 que ***“los operadores de las actividades económicas o ambientales incluidas en esta ley están obligados a adoptar y a ejecutar las medidas de prevención, de evitación y de reparación de daños medioambientales y a sufragar sus costes, cualquiera que sea su cuantía, cuando resulten responsables de los mismos”***.

A su vez, el artículo 23 de esta misma norma aborda los supuestos en los que se precisa la actuación directa de la Administración, como es el caso de las que se están abordando en la crisis del vertedero de Zaldibar, y determina que: ***“En casos de emergencia, la autoridad competente podrá actuar sin necesidad de tramitar el procedimiento previsto en esta ley para fijar las medidas reparadoras, de evitación o de prevención de los daños medioambientales o para exigir su adopción”***. Una vez desaparecida la situación de emergencia, la autoridad competente ***“dictará resolución fijando el importe de los costes de las medidas ejecutadas en aplicación de este artículo y el obligado u obligados a satisfacerlos”***.

Finalmente, el punto 3 del artículo 23 de la Ley de Responsabilidad Ambiental señala que ***“la autoridad competente recuperará del operador o, cuando proceda, del tercero que haya causado el daño o la amenaza inminente de daño, los costes en que haya incurrido por la adopción de tales medidas de prevención, de evitación de nuevos daños, o de reparación”***.

Salud

LA MESA INTEDERPARTAMENTAL PRESIDIDA POR EL LEHENDAKARI MANTIENE LAS MEDIDAS PREVENTIVAS VIGENTES EN EUSKADI ANTE EL CORONAVIRUS

- **Los casos de COVID-19 contabilizados son 13: 10 en Araba, 2 en Gipuzkoa y 1 en Bizkaia; todas se encuentran bajo seguimiento de Salud Pública y Osakidetza**

El Lehendakari ha presidido hoy la reunión de la mesa interdepartamental constituida la semana pasada por el Gobierno Vasco para abordar la actuación ante el coronavirus en Euskadi, donde son un total de 13 los casos contabilizados.

Así lo ha dado a conocer la Consejera de Salud, Nekane Murga, que ha comparecido junto al Consejero Josu Erkoreka en la rueda de prensa posterior al Consejo de Gobierno, para insistir en que **se mantienen las medidas preventivas vigentes a día de hoy**, y no se contempla por ahora implementar otro tipo de medidas excepcionales.

Tal y como ha comunicado a la mesa presidida por el Lehendakari e integrada por siete consejeros y consejeras, los **13 casos de COVID-19** contabilizados en Euskadi corresponden a 10 en Araba, 2 en Gipuzkoa y 1 en Bizkaia; del total, 5 son personal sanitario. Según ha informado la consejera Murga, **todos ellos bajo seguimiento** de Salud Pública y Osakidetza.

En la noche de ayer se confirmó el primer caso en **Bizkaia**. Se trata de un hombre cuyo estado de salud es bueno y actualmente permanece en su domicilio, desde donde se le realizará seguimiento; todo apunta a que el foco del contagio se produjo tras un viaje a Amberes.

En Araba se suman dos nuevos casos hasta alcanzar un total de 10. Uno de ellos corresponde a una mujer que ya permanecía aislada, dado que era contacto de los primeros positivos. El otro caso corresponde a un hombre, también contacto de los primeros casos, por lo que permanecía en seguimiento domiciliario. Ha sido trasladado al hospital para realizar su seguimiento clínico.

En cuanto a los 2 casos de **Gipuzkoa**, uno de ellos ha sido traslado al hospital para que la vigilancia se desarrolle desde allí.

ACTUACIONES DESARROLLADAS

Además de los últimos datos de situación, la mesa interdepartamental ha sido informada también de las actuaciones llevadas a cabo, siempre adoptadas en función de las recomendaciones de los expertos y que se están compartiendo

con el resto de instituciones vascas y con las formaciones políticas del arco parlamentario vasco.

Entre esas medidas, destacan las implementadas en el ámbito sanitario.

En primer lugar, el Departamento de Salud continúa trabajando en los **estudios de contactos** de los casos confirmados, estudios que abarcan en este momento un total de 211 personas. En este sentido, Nekane Murga ha anunciado la **incorporación de 12 profesionales facultativos más al equipo de vigilancia epidemiológica de Salud Pública**, lo que permitirá reforzar el servicio en el que actualmente trabajan 25 personas.

Por otro lado, todas las organizaciones sanitarias de Osakidetza siguen aplicando los **protocolos de actuación**. Según admitía Nekane Murga, los casos positivos entre los profesionales sanitarios han supuesto una merma en los centros, especialmente en la OSI Araba. No obstante, la propia Consejera reiteraba su llamamiento a la tranquilidad, especialmente a la población alavesa, cuya asistencia está garantizada.

La Consejera de Salud ha recordado que el pasado domingo se dieron ya instrucciones a las Organizaciones Sanitarias de Osakidetza para **extremar las precauciones con el colectivo de profesionales**, decisión ratificada tras las dos reuniones mantenidas ayer por la mesa técnica con el Ministerio de Sanidad. Unas medidas que ahora se hacen extensibles a los y las profesionales de centros sociosanitarios.

Al mismo tiempo, en las últimas semanas **se ha intensificado la formación de profesionales**, tanto a través de diferentes canales como la intranet, mailing, vídeos formativos, como mediante cursos presenciales a más de 1.700 profesionales de unidades de enfermedades infecciosas, prevención, urgencias, emergencias y atención primaria.

También se ha formado y reforzado con más personal el **Consejo Sanitario** de Osakidetza, que desde el 26 de febrero ha contabilizado más de 950 llamadas.

RECOMENDACIONES A LA CIUDADANÍA

La Consejera de Salud del Gobierno Vasco ha vuelto a incidir en su intervención en la importancia de que la ciudadanía siga las recomendaciones que el Departamento de Salud y Osakidetza vienen dando a través de todos los cauces a su alcance y que están disponibles en la **web** del Departamento y Osakidetza, y desde ayer, también en la **app** de Osakidetza. Las principales:

-Permanecer en casa y llamar al 900 20 30 50, en el caso de haber viajado a alguna zona de riesgo y presentar síntomas.

-Adoptar medidas higiénicas como el lavado de manos, taparse al toser o la utilización de pañuelos desechables.

Igualmente, que aquellas **personas con fiebre o cuadros de infección respiratoria aguda** no acudan a actos colectivos en recintos cerrados o de visita a instituciones como centros sociosanitarios.

Cultura y Política Lingüística

EL DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA APRUEBA UNA CONVOCATORIA DE AYUDAS DE 445.000 EUROS PARA FOMENTAR Y DESARROLLAR LAS ARTES PLÁSTICAS Y VISUALES

- **Estas subvenciones, que el año pasado apoyaron 64 iniciativas culturales, contarán con tres modalidades**

El Departamento de Cultura y Política Lingüística destinará este año 445.000 euros a fomentar y desarrollar las artes plásticas y visuales en Euskadi. El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión de hoy esta convocatoria de ayudas, que contará con tres modalidades. El pasado año se apoyaron económicamente a través de esta convocatoria de subvenciones un total de 64 iniciativas.

La convocatoria de subvenciones para el fomento de las artes plásticas y visuales cuenta con las siguientes líneas de ayudas:

- Modalidad de promoción-difusión, que tendrá un presupuesto de 55.000 euros. Esta modalidad permitirá subvencionar dos tipos de iniciativas.
 - a) Organización y/o participación en eventos o manifestaciones de arte contemporáneo (certámenes, festivales, exposiciones...) a celebrar en centros culturales de Euskadi.
 - b) Manifestaciones de sensibilización sobre el arte contemporáneo (encuentros, jornadas, congresos, talleres, conferencias...) que se lleven a efecto en el ámbito de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- Modalidad de publicaciones, que contará con un presupuesto de 121.000 euros. A través de esta modalidad se apoyará la realización de publicaciones en distintos soportes cuyo objeto sea la difusión del arte contemporáneo en el País Vasco, así como la promoción de artistas y su obra.
- Modalidad de creación-producción, que contará con un presupuesto de 269.000 euros. Por medio de esta modalidad se apoyará económicamente la realización de proyectos en el campo de la creación-producción plástica y visual.

Además de esta convocatoria de ayudas, el Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco cuenta con otras políticas dirigidas a apoyar a las y los creadores en el ámbito de las artes plásticas y visuales. Así, el Gobierno Vasco destina cada año 54.000 euros a la organización de los Premios Gure Artea, que reconocen a artistas referenciales en el ámbito de las artes plásticas y visuales. Además, el Departamento impulsa de manera importante las artes plásticas y visuales vascas a través de las subvenciones a galerías y museos vascos, al tiempo que apoya el programa Eremuak, cuyo objetivo es promocionar el contexto del arte contemporáneo vasco.

Finalmente, el Gobierno Vasco cuenta con dos convocatorias de subvenciones que, si bien abarcan la mayor parte de los sectores culturales, tienen especial incidencia en el fomento de las artes plásticas y visuales. Se trata de las convocatorias Sorgune y Bitartez, que el año pasado contaron con un presupuesto de 560.000 y 500.000 euros, respectivamente.

Cultura y Política Lingüística

EL GOBIERNO VASCO DESTINA 300.000 EUROS A SUBVENCIONAR EL DESARROLLO DE PROYECTOS AUDIOVISUALES

- **Esta línea de ayudas, una de las tres destinadas al mundo del cine, permitió apoyar el año pasado 16 proyectos cinematográficos**

El Consejo de Gobierno ha aprobado una partida de 300.000 euros dirigida a apoyar económicamente el desarrollo de proyectos audiovisuales. El objetivo de esta convocatoria del Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco es impulsar la preparación y diseño de producciones que se desarrollarán en 2020 y 2021, poniendo el foco en las operaciones anteriores a la fase de producción propiamente dicha. El año pasado se apoyaron a través de esta línea de ayudas 16 proyectos.

Las subvenciones del Gobierno Vasco dirigidas al sector audiovisual abarcan todo el proceso creativo, desde la creación de guiones hasta la producción audiovisual pasando por el desarrollo de proyectos. Para ello, el Departamento de Cultura y Política Lingüística pone en marcha cada año tres líneas de subvenciones, entre ellas la aprobada hoy por el Consejo de Gobierno. En primer lugar, atendiendo al inicio del proceso creativo, el Ejecutivo impulsa cada año la convocatoria de subvenciones para la 'Creación cultural', que abarca a través de sus siete modalidades diferentes sectores culturales. Una de esas siete modalidades está dirigida a la creación de guiones cinematográficos, y el año pasado contó con un presupuesto de 104.000 euros. A través de esa línea subvenciones se apoyaron 8 proyectos.

La segunda línea de subvenciones es la que hoy ha sido aprobada por el Consejo de Gobierno y que pone el foco en el desarrollo de los proyectos audiovisuales. El año pasado se apoyaron a través de esta convocatoria un total de 16 proyectos, a los que destinaron subvenciones de entre 11.784 y 22.380 euros. *3.000 obstáculos*, de Irusoin; *Robot Dreams*, de Aixerrota Films; *El asesinato de Anna Thorwald*, de Moriarti Produksioak; o *Cenicienta Enmascarada*, de Myriam Ballesteros Producciones, fueron algunos de los proyectos audiovisuales apoyados.

Finalmente, el Departamento de Cultura y Política Lingüística cuenta con una convocatoria de subvenciones dirigida a la producción audiovisual, económicamente la más importante. Esta línea de ayudas cuenta con un presupuesto total de 2.260.000 euros y cuatro modalidades: largometrajes de ficción; largometrajes cinematográficos de ficción de bajo presupuesto; largometrajes documentales de creación; y, finalmente, cortometrajes. El año pasado se apoyaron 24 iniciativas por medio de esta convocatoria.

El Departamento de Cultura y Política Lingüística decidió al inicio de la legislatura incrementar un 35 % estas líneas de ayudas, con el fin de “afianzar el proceso de desarrollo de los proyectos y apoyar a los nuevos talentos. En el caso de la convocatoria hoy aprobada, su presupuesto paso de 100.000 a 300.000 euros.

Al margen de estas tres líneas se subvenciones, el Gobierno Vasco impulsa el audiovisual vasco a través de Zineuskadi (Europa Creativa, Zinema Euskaraz, Basque Audiovisual...), la Filmoteca Vasca, el apoyo a través de subvenciones nominativas a las asociaciones del sector (el año pasado fueron para IBAIA, EPE/APV, Eiken y la Asociación de Guionistas), el programa Kimuak (gestionado por Etxepare y la Filmoteca Vasca) o el impulso a los festivales cinematográficos, con el Zinemaldia, Zinebi y Mendifilm a la cabeza. Asimismo, EITB realiza cada año una aportación fundamental al cine vasco y hace posible que salgan adelante los principales proyectos cinematográficos que se realizan en Euskadi.